



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021ko ekainak 1

Vitoria-Gasteiz, 1 de junio de 2021

Segurtasuna

EUSKO JAURLARITZAK ETA EUSKAL DYA FEDERAZIOAK LANKIDETZA-HITZARMEN BAT IZENPETU DUTE LARRIALDIEN ETA BABES ZIBILAREN ARLOAN

- **Hitzarmen berriak Federazioaren eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren arteko koordinazioa sakonduko du**
- **Euskal DYA borondatezko lana egiten duen erakunde humanitarioa da, eta Euskadin esperientzia handia du jarduera humanitario eta sozialetan**

Gobernu Kontseiluak onartu du Segurtasun Sailaren eta Euskal DYA Federazioaren artean lankidetzeta-hitzarmen bat izenpetzea larrialdien eta babes zibilaren arloan. Hitzarmen berriak aurrekoa, 1995ekoa, ordezkatuko du, eta Federazioaren eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemaren arteko koordinazioa sakonduko du, erakundearen izaera humanitarioa eta borondatezkoa balioetsita.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemaren helburua da pertsonak, ondasunak eta ondare kolektiboa babestea arrisku kolektibo larrietan, hondamendi eta lazeria publikoko egoeretan eta zerbitzu eta operatibo ezberdinak koordinatzea edo horiek esku hartzea eskatzen duten beste hainbat larrialdi-egoeretan.

Alde horretatik, Segurtasun Sailak koordinatuta bideratzen ditu zerbitzu ezberdinak, larrialdi-egoerei erantzunik egokiena eman ahal izateko, kalteak ezabatzea edo murriztera bideratutako babes zibileko planak eta taktika operatiboak garatuz.

Hitzarmenak jasotzen ditu, besteak beste, boluntarioek babes zibilaren eta larrialdiei aurre egitearen arloan egin beharrekoak, mobilizazio-sistema eta erabilgarri izango diren baliabideak eta bitartekoak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

GOBERNU KONTSEILUAK EUSKAL KASAZIO ZIBILEKO ERREKURTSOAREN LEGE PROIEKTUA ONARTU DU BIDE HORRETATIK AUZITEGIETARA JOTZEKO KASUAK ZABALTZEKO

- Ekimenak kendu egiten du prozesuaren gutxieneko zenbateko ekonomikoa, 600.000 eurokoa, kasazio gai bat epaitu ahal izateko eta kasazio interesaren kontzeptua handitzen du
- Kopuru ekonomiko handia dela eta, euskal zuzenbide zibilari lotutako oso kasu gutxi iristen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusira, 30 epai pasatxo 1989tik

Gobernu Kontseiluak euskal Kasazio Zibileko Errekurtsoren Lege Proiektua onartu du gaur eta honi esker eztabaida judizialek euskal zuzenbide zibilari eragiten diotenean justizia auzitegietan kasazio errekurtsoa jar daitekeen kasuak arautuko da. Ekimenak kasazio errekurtsoa jartzeko kasuak zabaltzea nahi ditu eta, horretarako, kasazio auzi bat epaitu ahal izateko 'gutxieneko diru kopurua' kendu du. Halaber, kasazio interesaren edukiera zabaltzen du, hau ere erabakigarria baita kasazio bidetik jo ahal izateko.

Gaur gaurkoz kasazio errekurtsoa jartzeko gutxieneko zenbatekoa 600.000 eurokoa da. Kopuru honetara iritsi ezinda hainbat kasu kanpoan geratzen dira eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusira iristen diren kasuak urriak dira. Izan ere, 1989an sortu zenetik, euskal auzitegi horrek - Zuzenbide Zibilari buruzko aretoak- 30 epai inguru baino ez ditu eman kasazioan. Hain eskarmentu urriak ez du uzten euskal zuzenbide zibilari buruzko doktrina bateratu bat osatzen. Kontuan hartu behar da euskal auzitegi nagusiari dagokiola doktrinaren funtzio bateratzailea.

Madariaga Dorretxean, Busturian, gaur egin den asteroko bileran Gobernu Kontseiluak onartutako lege proiektuak kasaziora iristen diren kasuak areagotzea du helburu. Horrela, EAeko Auzitegi Nagusiak gisa honetako epai gehiago izango ditu eta, horrenbestez, bere korpus jurisprudenziala handituko du, eta bere doktrina aberastu.

Ildo beretik, kasazio interesa deiturikoa ematen dela interpreta daitekeen kasuak zabaltzea egin dira, gaur egun kontzeptu estuegia baita. Honenbestez, sinplifikatu eta argitzeak kasazio bidean kasu gehiago sortzea ekarriko du. Orain arte, Euskadin Prozedura Zibilaren Estatuko legeak arautzen du kasazio errekurtsoa. Euskal kasazio zibila Estatuko esparruaren eskakizunen mende egoteak errotze eta gatazka sozial handiko kasu asko saihestu ditu kasazio epaiketarik.

Lege proiektuak helburu modernizatzaile nabarmena du eta egungo gizarte errealitatera egokitu nahi du, besteak beste sortu berri diren gai eta errealitate berriak hobeto aztertu eta tratatzeko, beti ere euskal zuzenbide zibilean betiko kontuez arduratzeari utzi gabe, hala nola gurasoen arteko harremanekin edo

familia zuzenbideko harremanekin, testamentu eta ondorengotzekin, ezkontzako ekonomia araubidearekin, landa-lurren arrentamenduak, herri lurren erabilera eta sozietate tradizionalen, kofradien edo fundazio pribatuen araubidea.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, lege proiektu tekniko eta konplexua da, eta beharrezkoa da euskal zuzenbide zibila aberasteko eta hobetzeko. Galiziak, Kataluniak eta Aragoik badute araudi hori beren lege autonomikoetan. Gernikako Estatutuaren 14.1 artikuluan dago jasota Euskadik kasazio errekurtsua arautzeko duen eskumena. Gainera, Konstituzioak gai horretan Euskadi gaitzen du 149.1,6. artikuluan autonomia erkidegoen zuzenbide substantiboaren berezitasunak aipatzen dituenean.

Kasazio errekurtsua ezohiko errekurtsu bat da, prozesu judizial batean sartuta dauden alderdiek ebazpen judizialen aurka jar dezaketena bai legearen interpretazio edo aplikazio okerra duelako, bai prozedura irregularrari jarraituz eman delako. Euskal zuzenbide zibilarekin zerikusia duten gaietan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako probintzia auzitegien ebazpenen edo epaien aurka kasazio errekurtsua jar daiteke EAeko Auzitegi Nagusian. Auzitegi horrek sala bat du gai horri buruz: arlo Zibileko eta Zigor arloko aretoa. Prozedura Zibilaren Estatuko Legeak arautzen ditu kasazio errekurtsuak. Gaur Gobernu Kontseiluan aurkeztutako lege proiektuak kasazio errekurtsua bidezkoa den kasuak handitu nahi ditu.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKADI ONDO ARI DA AURRERA EGITEN BERE INGURUMEN- EGOERARI DAGOKIONEZ

- **Publikatu da, 11 bektore aztertzen dituen «Ingurumenaren Egoera Euskadin 2020» txostena**
- **Bilakaera ona detektatu du uraren, airearen, zarataren, baliabide materialen, lurzorua, ekonomiaren, herritarren eta tokiko ingurumenaren datuetan; eta joera hobetu behar da biodibertsitatean, hondakinetan eta klima-aldaketan**
- **Txostena Eusko Jaurlaritzak ingurumen-arloan dituen lehentasunak ezarriko dituen hurrengo Euskadi 2030 Ingurumen Esparru Programa prestatzeko prozesuaren parte da**

Euskadik 2002az geroztik monitorizatzen ditu ingurumenaren egoera adierazten duten aldagaiak, eta azken azterketaren arabera, zeina 2020an egin zen, oro har, ondo ari da eboluzionatzen. Hala jasotzen da «Euskadiren Ingurumen Egoera 2020» azterketan. Horren ondorio nagusiak gaur jakinarazi ditu Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak, Urdaibaiko Ekoetxean Ingurumenaren Mundu Egunaren harira (ekainaren 5a) egin den Gobernu Kontseiluan.

Azterketak 11 bektore aztertzen ditu: ura, airea, klima-aldaketa, zarata, biodibertsitatea, baliabide materialak, hondakinak, lurzorua, ekonomia eta ingurumena, herritarrak eta ingurumena, eta tokiko ingurumena. Oro har, progresio positiboa ikusten da, baina egia da horietako hirutan joera hobetu egin behar dela, zehazki, biodibertsitatean, hondakinetan eta klima-aldaketan.

Txostenak garrantzi berezia du orain gauden unean, izan ere, V. Ingurumen Esparru Programa prestateta-prozesuan da. Horretan, Eusko Jaurlaritzak ingurumen arloan dituen lehentasunak ezarriko dira, eta Europako Itun Berdea izango du ardatz egituratzaile, horren espirtua euskal testuingurura eraman baita Basque Green Deal izenarekin.

Ingurumen Esparru Programak ibilbide-orria zehaztuko du, klima- eta ingurumen-erronkak aukera bihurtzeko, trantsizio bidezko eta integratzailea bermatzeko moduan.

Ildo horretan, V. Ingurumen Esparru Programaren prestatetari Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen aurreproiektua gehitu behar zaio, zeina izapidetzen ari baita eta Euskadi helburu klimatikoaren arloan abangoardian kokatuko duen arau- eta plangintza-esparrua osatuko duen, arlo honetan munduko eskualde eta herrialde aurreratuenak direnekin batera.

Programazio berezia

Ingurumenaren Mundu Eguna, urtero ekainaren 5ean ospatzen dena, Nazio Batuen hitzordu nagusietako bat da, mundu osoan ingurumenaren aldeko sentsibilizazioa eta ekintza bultzatzeko; planetaren alde jarduteko egun bat da, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailak bat egiten du, beste urte batez, ekitaldi eta jardunaldien programazio berezi bat antolatuz, Ihobe sozietate publikoaren bidez:

- Ekainaren 7an, astelehena, Euskadiko Ingurumenaren Mundu Egoerari buruzko txostena aurkeztuko zaio ingurumen-sektoreari, eta Ingurumenaren Esparru Programa berriaren ildoak aurreratuko dira.
- Ekainaren 8an, asteartea, euskal kostaldeari buruz hitz egingo da, eta Eusko Jaurlaritzak itsas ingurunearen egoerari buruz egindako diagnostikoa aurkeztuko da.
- Ekainaren 11n, ostirala, lurzoruaren erabilerari buruzko eztabaida egingo da tokiko eragileekin, eta FAOk bultzatutako Lurzoruaren aldeko Munduko Aliantza aurkeztuko da. Jardunaldi hau European Green Week Europako Aste Berdearen programazio ofizialaren barruan kokatzen da.

Jardunaldi horiek guztiak doakoak eta web formatuan izango dira, Zoom plataformaren bidez, Ihoberen webgunean (www.ihobe.eus) izena eman ondoren.

INGURUMENAREN EGOERA EUSKADIN, 2020 Bektoreen arabera laburpena

Joera positiboa

Ingurumenaren Egoera 2020 azterketan, aztertutako adierazleen arabera, joera positiboa da ingurumen-esparru gehienetan: ura, airea, zarata, baliabide materialak, lurzorua, ekonomia eta ingurumena, herritarrak eta ingurumena, eta tokiko ingurumena. Bestalde, klima-aldaketari, biodibertsitateari eta hondakinei dagokionez, hobekuntza-marjina bat detektatu da.

Azterketak 2030erako perspektibak ere nabarmentzen ditu.

URA

Euskadiko lurpeko uren, bainatzeko uren eta kontsumorako uren egoera ona da. Gainera, hobera egin du lurrazaleko uren egoerak: oro har egoera «ona» zutenen ehunekoa % 34 zen 2012an, eta 2019an % 52ra igaro da. Egoera orokorra «ona» da Euskadiko masen % 92an.

EAEko bainatzeko eremuen % 85ek ur kalitate «bikaina» lortu zuten 2018an, Europar Batasuneko tasa globalaren antzekoa. Kalitate nahikoa edo eskasa duten bainatzeko eremuak 2000. urtean erregistratutako % 47tik % 2ra murriztu dira.

2019ko datuen arabera, 81,4 m³ ur kontsumitzen da biztanle bakoitzeko, eta Euskadiko biztanleen % 98k dute kalitate oneko ura.

2030erako erronkatzat ezartzen da, besteak beste, gizarteak, urari dagokionez, eragiten duen presioa murriztea, uholde-ordokien eta hezegune naturalen azalera handitzeaz gainera, eta uholdeen aurka babesteko metodo alternatiboak sustatzea.

AIREA

Euskadin murrizten ari dira emisio kutsatzaileak, eta, aldiz, hobetzen ari da airearen kalitatea. Kutsatzaile atmosferikoen emisioak nabarmen jaitsi dira: 2,5 mikratik beherako partikulak etengabe urritu dira 2006ko maximotik aurrera, eta, ondorioz, 1990eko mailen pareko mailak lortu dira. Euskadin, PM₁₀ partikulen urteko batez besteko kontzentrazioak % 59 egin du behera 2003-2019ko aldian, eta Europako zuzentarauak airearen kalitateari buruz ezartzen duen helburuaren azpitik dago.

Ozono-kontzentrazioa EB28ko eta Espainiako mailen azpitik dago, nahiz eta gora egin duen 2011-2019ko aldian.

Egunen % 91n airearen kalitatea «ona» edo «oso ona» izan zen; egunen % 6,3an, kalitatea «hobetzeko modukoa» zen; eta % 2,3an, berriz, «txarra» edo «oso txarra» (urtean 8 egun). Hobekuntza nabarmena ageri du 2005eko datuekin alderatuta.

2030erako erronken artean, horren kutsatzailea ez den garraioa lortzea eta substantzia kimikoek osasunean duten inpaktuaren ezagutza hobetzea daude.



KLIMA-ALDAKETA

Energia berriztagarrien kuota areagotu egin bada ere, egonkortu egin dira berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak, eta euskal garraioak oraindik ere emisio handiak egiten ditu. 2019an, garraioak bakarrik areagotu zituen berotegi-efektuko gasen emisioak Euskadin, 2005. urtearekin alderatuta (% 12,5). Datu positibotzat, nabarmentzekoa da, 2019ko BEGen inbentarioan jasotzen denarekin bat, garraioak joera-aldaketa izan duela azken bi urteetan, eta emisioak jaitsi egin direla lehen aldiz hamarkada batean (– % 1,3 aurreko ekitaldian eta –% 0,6 2019an).

2005. urteaz geroztik, EAEko ekonomia % 20 hazi da, eta berotegi-efektuko gasen emisioak, ostera, % 27 murriztu dira. Hortaz, posible da ekonomia haztea eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea.

2030. urteari begira, erronka garrantzitsuak daude, hala nola garraioan joera alderantzikatzea; energia-kontsumoa murriztea, efizientzia hobetuz; energia berriztagarrien iturriak hedatuz jarraitzea; higiezinaren parkea klima-aldaketara moldatzea, eta berotegi-efektuko gasen emisioak % 45 jaitea (2005. Urtearekin alderatuta).



ZARATA

Euskadin ingurune-zarataren eraginpean dagoen biztanleriaren tasa urriagoa da Europakoa baino; hala ere, hiru hiriburuek zarata-maila handia dute oraindik ere. Egunean zehar gehiegizko ingurune-zarataren eraginpean dagoen biztanleriaren tasa % 17 da, eta % 19 gauez. Biztanleen ia % 60k jasaten du Europako legerian ibilgailuen zirkulazioak eragindako zaratarako ezarritako muga maximoa baino gehiago (55 dB).

2030erako zarataren segimendu zorrotza egitea da asmoa, osasunean duen eraginarengatik.



BIODIBERTSITATEA

Euskadin, oro har, hobetzeko modukoa da habitaten eta interes komunitarioko espezieen kontserbazio-egoera; hala ere, aztertutako azken aldiko eboluzioa (2013-2018) pixka bat hobea da.

Interes komunitarioko habitaten % 69k kontserbazio-egoera eskasa du. Eta egoera txarrena dutenak duna-ekosistemak, kosta-ekosistemak, aintzira- eta urmael-ekosistemak eta baso-ekosistemak dira.

Igarabak dira kontserbazio-egoera hobetu duen interes komunitarioko espezie bakarra; desman piriniotarraren eta bisoi europarraren kontserbazio-egoera, berriz, eskasa/txarra da. Nekazaritza-inguruneetako hegazti-espezieen populazioa, 2019an, jaitsi egin da 1998ko datuekin alderatuta, baina baso-eremuetako eta hiri-inguruneetako hegaztien populazioak gora egin du.

Belardi eta baso autoktonoen konektagarritasuna hobetu egin da eta Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek urtean 13 milioitik gora inbertitu dituzte Natura 2000 Sareko espazioak kontserbatzen eta kudeatzen.

2030erako, erronkak honako hauek dira: eremu babestuak lurraldearen % 30eraino zabaltzea; ekosistema degradatuak leheneratzea; nekazaritza ekologikoa zabaltzea; polinizatzaileen murrizketa alderantzikatzea; eta pestiziden erabilera eta kaltegarritasuna murriztea, baita biodibertsitatea areagotzea ere hirietako eta hiri inguruko espazioetan.



BALIABIDE MATERIALAK

Materialen etxeko kontsumoa jaitsi egin da Euskadin (% 21, 2000-2017 urte bitartean), eta horrek pentsarazten du posible dela ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasangarriago eta efizienteago bat lortzea, baliabideak aprobetxatuko dituen. 2005etik, Euskadin, erdira jaitsi da etxeko erauzketa: 2005ean 10,2 tona ziren biztanleko, eta 2017an, berriz, 5,5 tona. Gainera, hobera egin du Produktibitate Materialak (BPGaren eta etxeko material kontsumoaren arteko harremana). Hala ere, beheranzko joera ikusi da azken bi urteetan.

2030era begira, erronkak honako hauek dira: Produktibitate Materiala % 30 igotzea 2016ko datuekin alderatuta; ekodiseinua duten produktuak garatzea, ekoizteko baliabide material gutxiago behar dituztenak; eraikuntzaren sektorean baliabideak hobeto aprobetxatzea eta nekazaritzako elikagaien balio-kate osoan eragitea.



HONDAKINAK

Euskadin egonkortu egin dira hondakinen sorkuntza eta birziklatze-tasa. Euskadiko hondakin-sorkuntzaren eta BPGaren arteko desakoplamendu erlatiboa jarduera ekonomikoaren «ekoefizientzia» handiagoaren seinale da, eta BPG unitate bakoitzeko sortutako hondakinak gutxitzea ekarri du; hala, 64 kg hondakin zenbatu dira BPGko mila euroko. Elikagai-hondakinen *per capita* sorkuntza-tasa % 13 handiagoa da 2014an erregistratu zena baino.

Euskadin, ekoizpenetik eta kontsumotik eratorritako hondakin guztien birziklatze-tasa % 52 izan zen, meatzaritzako hondakin nagusiak alde batera utzita; tasa hori EBko gutzizkoaren % 57 baino tasa txikixeagoa.

2030. urteari begira, helburua da material zirkularraren erabilera % 30 handitzea eta BPGko unitateko hondakinen sorkuntza-tasa ere % 30 murriztea, 2016ko datuekin alderatuta. Lehengai sekundarioen merkatu bat ere sustatuko da, ekonomia zirkularra sustatuko da eta kontsumitzaileen «konpontzeko eskubidea» ezarriko da.



LURZORUA

Kutsatuta egon litezkeen kokalekuen gutzizko azalera % 64 murriztu da, 2010eko datuekin alderatuta. Guztira, 1.031 kokaleku leheneratu dira 2000. urteaz geroztik, hau da, 1.157 hektareako azalera metatua leheneratu da.

Euskadik Lurzoruak Babesteko 2030 Estrategia onetsiko du laster, eta hor zenbait neurri planteatuko dira lurzoruen kontserbazio-egoerari eta eboluzioari buruzko ezagutza areagotzeko; lurzoruen kudeaketa jasangarria sustatuko da, eta areagotu egingo dira lurzoruen kontserbaziorako eta erabilera jasangarrirako sentsibilizazioa, heziketa eta prestakuntza. Halaber, ekosistemen zerbitzuak edo naturan oinarritutako soluzioen aplikazioa sustatuko dira.



EKONOMIA ETA INGURUMENA

Euskadik desakoplamendu nabarmena ageri du barne-produktu gordinaren eta ingurumen-adierazle nagusien artean: 2000-2018 aldian BPGa % 38 areagotu da, baina murriztu egin dira ingurumen-aldagaiak, hala nola PM₁₀ partikulen emisioa eta zabortegeko hiri-hondakinak, % 31 eta % 53 hurrenez hurren.

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek ingurumenera bideratutako 181,6 milioi euroren % 80 baino gehiago urarekin eta hondakinekin lotutako proiektuetara bideratu ziren.

2014an baino % 19 gehiago izan arren, Euskadin 2018an ingurumen-zergen bidez bildutako 1.256 milioi euroak BPGaren % 1,6 dira, EB-28ko % 2,4 baino gutxiago.

2030erako helburuen artean, ingurumen-aldagaia aintzat hartzen duten eredu ekonomiko jasangarrien alde egitea dago, jasangarritasuna garapen ekonomikorako palankatzen ezartzearen alde egitea eta hazkunde ekonomikoa zerga-erreformen bidez sustatzea ere.



HERRITARRAK ETA INGURUMENA

EAEko herritarrek oso garrantzitsutzat jotzen dute ingurumena babestea, eta gero eta eskurago dute kalitatezko ingurumen-hezkuntza.

EAEko herritarren % 89k uste dute kontsumoa jaisteak ingurumenaren hondamena saihesten lagunduko lukeela.

2020/2021eko ikasturtean egonkortu egin da Eskolako Agenda 2030 programarekin bat egin duten ikastetxeen (443) eta ikasleen (187.000) kopurua, baita «Jasangarritasuneranzko Eskola» ziurtagiria duten ikastetxeen kopurua ere (108 izan dira ikasturte honetan).

Ekoetxeen Sareko lau zentroek 100.989 bisitari jaso zituzten 2019an; horrek esan nahi du % 140ko igoera izan dela 2008. urtearekin alderatuta. Urdaibaiko Ekoetxeak 66.989 bisitari izan ditu, eta harexek jaso du bisita gehien 2019an.

2030erako, Eusko Jaurlaritzaren apustuen artean daude gizarte-elkarrizketa eta gizartearen ingurumen-kezkei etengabe erantzutea, eta ingurumen-hobekuntzako jarduketek eragin dieten kolektiboek soluzioak eskaintzea. Halaber, metodologia berritzaile eta integratzaileak sustatuko dira hezkuntza-esparruan.



TOKIKO INGURUMENA

Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarea-Udalsarea 2030 190 udalerriz dago osatuta (guztien % 76), zeinek EAEko biztanleriaren % 98 biltzen duten. Horietako batzuek bat egin dute klima-aldaketari eta energiari buruzko nazioarteko ekimenekin (21 udalerrri Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Ituneko parte dira, zeina esparru horretako mundu-mailako mugimendu handieneko bat den).

Udalerrri horietan, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuei (GJH) egindako ekarpenak 10etik 7,2ko balioa du batez beste. Horien artean, garapen jasangarriko 12. helburuak (*Ekoizpen eta kontsumo arduratsua*) du ekarpen-indizerik handiena: 10etik 8,3.

2030erako, modu jasangarrian kudeatutako herriak eta hiriak lortzeko eta Udalsarea 2030 osatzen duten udalen kopurua handitzeko egindako ahaleginari eutsiko zaio. Sarearen Plan Estrategiko berriak palanka gisa jardungo du GJHen ildoko erronka berrietarako eta erronka komunitario berrietarako klima-aldaketaren arloan. Eta Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Itunari atxikitako EAEko udalerrrien kopurua handitzea espero da.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK 712.780,62 EUROREKIN LAGUNDUKO DIE EKOIZLEEI KALITATE ETA JATORRI ERREGIMENETAN PARTE HARTZEN

- **Finantzatuko da erregimen horietan lehen aldiz sartzea eta informazio eta sustapen jarduerak egitea**
- **Helburua da kalitateko eta jatorriko euskal produktuak babestea eta produktu horiek nazioartean proiektzioa edukitzen laguntzea**

Eusko Jaurlaritzak oniritzia eman dio ekoizleei kalitate erregimenetan (Jatorri Izendapenak, Adierazpen Geografiko Babestuak eta Ekoizpen Ekologiko Ziurtatua) lehen aldiz parte hartzen laguntzeko eta Euskadiko nekazaritzako produktuak eta elikagaiak Europako Erkidegoko merkatuan ezagutarazteko eta sustatzeko ekoizleek egingo dituzten jardueretan laguntzeko 2021eko ekitaldian emango diren 712.780,62 euroren laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak eman duen aginduari.

Bi eratako laguntzak aurreikusten dira:

- **Ekoizleek kalitateko erregimenetan lehen aldiz parte hartu dezaten laguntza.** Laguntza urteko prima bat izango da ustiategi bakoitzeko, eta bere zenbatekoa kalitate erregimenetan parte hartzeko eskatzaileak egin behar izan dituen gastu finkoen mailaren arabera erabakiko da. Laguntza gehienez ere 5 urterako izango da, onuraduna inskribatu den urtetik hasita. Guztira, 218.850,92 euro izango dira
- Kalitate erregimen baten pean dauden produktuak Europako Erkidegoko merkatuan **ezagutarazteko eta sustatzeko** ekoizleen elkarrekin egiten dituzten **jardueretarako laguntza**. Zuzeneko dirulaguntza bat izango da, ekintzen kostuetatik diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko bat estaltzeko. Laguntza horietarako aurrekontu kreditua 493.929,70 eurokoa izango da.

Laguntzak eskatzeko inprimakiaren eredia http://www.euskadi.eus/web/orrian/dago/eskuragarri,eta/eskariak/Eusko_Jaurlaritzako_Elikagai_Kalitate_eta_Industriako_Zuzendaritzara_bidali_beharko_dira. Pertsona fisikoek modu presentzian eta elektronikoki aurkeztu ahal izango dituzte eskariak, eta pertsona juridikoek, berriz, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dituzte.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 28,5 MILIOI EURO BIDERATU DITU 2021-2022 IKASTURTEKO UNIBERTSITATE-BEKETARAKO

- **2020-2021 ikasturtean 11.294 euskal ikasle izan dira unibertsitate-beken onuradun**
- **Eskaerak aurkezteko epea: uztailaren 1etik 30era, biak barne**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, gaurko bilkuran onartu du 2021-2022 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko dirulaguntzetarako deia egiten duen agindua. Deialdi honetan, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko dirulaguntzak ere jasotzen dira. Orotara, Hezkuntza Sailak 28.560.000€ milioi euro bideratzen ditu unibertsitate-beketarako, gorago aipaturiko bi laguntza-lerro horietan.

Deialdi honetara zuzendutako aurrekontua, dena den, handitu egin ahal izango da, beharrezkoa balitz. Hezkuntza Sailak bermatzen du baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiek laguntza jasoko dutela, ezarritako kopuruetan, aurkeztutako eskabideen kopurua eta eskatzaile onuradunen kopurua edozein izanik ere.

2021-2022 ikasturterako deialdi honetan, Hezkuntza Sailak beken izapidetzea arintzeko helburua hartu du, beka eskaera guztiek ikasturteko lehen hiruhilekoan erantzuna jaso dezaten eta ikasleek urtea amaitu baino lehen kobratu ahal izan dezaten, erantzuna baiezkoa bada. Horrela, beka jasotzeko eskubidea duten ikasleek ahalik eta lasterren izango dute eskura dagokien laguntza.

Laguntzak eskatzeko epea uztailaren 1etik 30era izango da, biak barne. Eskabidea eta bekaren izapide guztiak elektronikoak izango dira.

1.- 2021-2022 ikasturtean **unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko beka:** 28.460.000 euro

Beken deialdi hau, 28.460.000 euroko diru-kopuruarekin, Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-egoitza duten ikasleentzat da, 2021-2022 ikasturtean Autonomia Erkidego honetan edo Estatuaren gainontzeko tokietan kokatuta dagoen edozein zentrotan ondorengo ikasketak egin behar badituzte:

- Graduko unibertsitate-titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak
- Unibertsitate-masterreko titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak
- 25 urte baino gehiagokoak unibertsitatean sartzeko prestakuntza-ikastaroak, unibertsitate ez-presentzialetan emandakoak
- Goi-mailako arte-ikasketak.

Aurtengo berrikuntza nagusia "Ikaskuntzari laguntzeko eta eraldaketa digitalerako zenbateko osagarria" deritzon osagaian dago. Osagai horrek

digitalizazioaren ikuspegia txertatzen du berritasun gisa. Horrela, beka bat lortzen duten unibertsitateko ikasleek urtean 300 euroko laguntza ere jasoko dute gutxienez (300 eta 475 euro artekoa, errenta-mugaren arabera). Kopuru hori gradu osoan mantenduko da, eta, horri esker, ikasleek ordenagailua edo ikasketetarako beharrezkoak dituzten beste elementu batzuk eskuratu ahal izango dituzte.

Beka jasoko duen ikaslea Euskadin erroldatuta egotea baldintza da oraindik ere, baina deialdi honetan malgutu egiten da zenbait kasutan. Erroldatze-irizpidea zabaldu egin da, eta, horrela, zerga-egoitza Euskadin duten familiek beka eskuratu ahal izango dute, nahiz eta EAEtik kanpo erroldatuta egon.

Bestalde, deialdi honetan errentan % 5eko kenkaria aplikatzen jarraituko da, iaz bezala, 2021ean Covid-19k ekonomikoki kaltetu dituen familientzat. Kenkari hori aplikatzeko, kontuan hartuko dira 2021ean zehar gutxienez hiru hilabetez gertatutako langabezia-egoerak, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, enplegu-erregulazioko espedienteak edo jarduera-itxierak (autonomoen kasuan).

2020-2021 ikasturte honetan, 11.294 euskal ikasleek eskuratu dute unibertsitateko beka orokorra, bere osagaietakoren batean edo zenbaitetan, hala nola:

- Matrikula osagaia: matrikularen zenbatekoa prezio publiko ofiziala izango da, 2021-2022 ikasturtean zerbitzu akademikoetarako ezarritakoa.
- Ikaskuntzari laguntzeko eta eraldaketa digitalerako zenbateko osagarria: unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak egiteko ikasleek eskuratu behar dituzten ordenagailu, liburu eta materialaren gastuetan laguntzea da osagai honen helburua.
- Familia-errentari lotutako oinarrizko zenbatekoa: ezohiko osagaia erabiliko da ekonomia-egoera bereziki zaila duten pertsonen ikasten laguntzeko.
- Hiriarteko joan-etorriak: osagai honen helburua da ikasleari laguntzea familia-egoitzatik ikastetxerako (Euskadi barnean) garraioaren gastua arintzen.
- Probetxu akademikoa: ikasleen lana saritzen du osagai honek, baldin eta ikasleek aurreko ikasturtean gutxienez 60 kredituko matrikula egin bazuten, eta 2020-2021 ikasturtean emaitza akademiko onak izan badituzte.
- Egoitza: ikasleek, ikasketak direla-eta, egoitzaz aldatzeko egin behar dituzten gastuak ordaintzen laguntzen duen osagaia da

2.- Beren ezaugarri fisikoak edo psikikoak direla-eta, **mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko dirulaguntzak:** 100.000 euroko diru-kopurua

Dirulaguntza hauek ematen dira mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleek euren ikasketa-zentrora iristeko garraibide publikoak, egokituak izanik ere, ezin badituzte erabili; edo garraibide publikoak erabili ahal izan arren, beste pertsona baten laguntza behar badute. Ikasle bakoitzari emango zaion gehieneko zenbatekoa 12.000 eurokoa izango da.

Hezkuntza

9,9 MILIOI EURO MUSKIZKO INSTITUTUAREN ERAIKIN BERRIA EGITEKO

- Egurrezko panelen bidez eraikiko da; ingurumenarekiko errespetuaren eta erabiltzaileen erosotasunaren eta osasunaren aldeko apustua egiten du
- *Passivhauss* irizpideak aplikatuko dira, ahalik eta energia-efizientzia handiena lortzeko
- Muskiz BHIk DBHko 4 lerro eta Batxilergoko 2 lerro izango ditu, eta 520 ikasle hartzeko gaitasuna

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuak hala proposatuta, 9.961.885,54 euroko gastua egitea, Muskiz Bigarren Hezkuntzako Institutuaren (IES Muskiz BHI) eraikin berria egiteko, Bizkaiko udalerrri horretan. Guztira, 4.262 metro koadroko azalera eraikia izango dute hezkuntzako instalazio berriek, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4 lerro eta Batxilergoko 2 izango ditu; guztira, 520 ikasle hartzeko gaitasuna izango du eraikin berriak.

Egurrez eraikia

Muskizko institutu berria eraikin trinko gisa eraikiko da, eta oinplanoan “T” forma izango du. Baina eraikinaren ezaugarri nagusia egituran dago, bai eta eraikitzeko erabiliko dituen eraikuntza-baliabide ugarietan eta arkitektura-estrategietan ere, ahalik eta energia-efizientzia handiena lortzeko helburuarekin.

Eraikin berriak egurrezko panel kontralaminatuen bidez osatutako egitura izango du, ingurumenarekiko errespetuaren aldeko eta eraikina erabiliko duten pertsonen erosotasunaren eta osasunaren aldeko apustua egiten duen sistema. Honako ezaugarri hauek ditu sistema honek, besteak beste:

- Bioeraikuntza: egurrak inguruneko hezetasuna erregulatzen du, aireko substantzia kaltegarriak xurgatzen ditu eta energia estatikoa eta atmosferara igortzen den CO₂a nabarmen murrizten ditu. Hala, espazio garbiak eta atseginak sortzen ditu, ikastetxe batean nahi den girorako aproposak.
- Isolamendu termiko eta akustiko ona: egurrak zarataren indargabetze akustiko onak izateko aukera ematen du (airekoa eta inpaktukoa), eta soinu-absortzioaren koefiziente altua du.
- Eraikuntzarako denbora laburrak: murriztu egiten dira obrarako denborak eta horrek, ondorioz, eraikuntzako kostuak murriztea ere badakar.
- Balio ekologiko handia: fabrikaziorako erabilitako lehengaiak zaintza-katea bermatzen duten baso-ustiapen ekologikoetatik datoz. Gainera, egurrak karbonoa biltzen du eraikinetan, atmosferara igorri beharrean;

energiaren eta klimaren balantze positiboa duen eraikuntzako material bakarra da.

***Passivhaus* estandarra**

Muskiz BHI munduan hedatuen dagoen eta onartuena den energia-efizientziako eraikuntza-estandar bati jarraikiz altxatuko da: *Passivhaus* estandarra. Isolamendu termiko handia, infiltrazio-kontrol zorrotza eta barneko airearen kalitate onena duten eraikuntzak altxatzean datza; gainera, eguzkiaren energia aprobetxatzen du, klimatizazio hoberako. Horrek guztiak nabarmen murrizten du energiaren kontsumoa.

Horretarako Muskiz BHIk sistema pasiboak eta aktiboak erabiliko ditu. Energia-efizientziarako sistema pasiboen artean, honako hauek nabarmentzen dira: isolamendu termiko etengabea inguratzaile termiko osoan; kalitateko leihoak, edo zubi termikoak ezabatzea.

Sistema aktibo gisa, institutuak aireztapen mekanikoa izango du, beroaren berreskuragailuarekin. Sistema hau bi zirkuituk eratzen dute: batean, aire freskoa sartzen da kanpotik, eta, bestean, barneko aire kutsatua irteten da. Aireztapen modu horrek % 80tik gora aprobetxatzen du barneko aire kutsatuak garraiatzen duen beroa, kanporatu aurretik.

Obretan, eraikin berria eraikitzeko orubean dagoen eta gaur egun erabiltzen ez den Haur Hezkuntzako eraikina eraitsiko da. Proiektua egiteko 18 hileko epea egongo da, obrak hasten direnetik zenbatzen hasita. Hezkuntza Sailak obrak 2022. urtearen hasieran hastea aurreikusten du.

Osasuna

OSASUN SAILAK UPV/EHUKO IKASLEEI PRAKTIKAK INGURUMEN OSASUNeko, ELIKADURA SEGURTASUNeko ETA OSASUN PUBLIKOKO LABORATEGIKO PROGRAMEN EREMUAN EGITEKO AUKERA ESKAINTZEN DIE

Gaurko Gobernu Kontseiluak onartu egin du **Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren artean hezkuntzako lankidetzaz hitzarmena sinatzeko** baimena ematea, kanpoko praktika akademikoak egiteko eta gradu-amaierako lanen eta/edo master-amaierako lanen garapena eta/edo zuzendaritza egiteko.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) helburuetako bat da kalitateko goi-mailako hezkuntza ematea, bertako ikasleen prestakuntza integralean lagundu eta lan-munduan sartzeko lanbide-prestakuntza ziurtatzeko. Hori horrela, Osasun Sailak ikasleei praktikak **Ingurumen Osasuneko, Elikadura Segurtasuneko eta Osasun Publikoko Laborategiko** programen eremuan egiteko aukera eskaintzen die; lan-arlo horiek zuzenean daude EHUK eskaintzen dituen titulazio batzuen azterlanerako helburu diren gaiekin lotuta.

Hitzarmen horren helburua da **kanpoko praktika akademikoak egiteko aukera ematea eta, hala badagokio, UPV/EHUn matrikulatuta dauden ikasleek unibertsitate-masterreko titulazioa eskuratzeko graduondoko ikasketa guztien master-amaierako lanak edo gradu-amaierako lanak egin eta/edo zuzendu ahal izatea.**

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 330.000 EURO BIDERATUKO DITU IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO

Gobernu Kontseiluak irakurzaletasuna eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburategietako zerbitzuen erabilera sustatzeko diru-laguntzak onartu ditu gaur. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 330.000 euro bideratuko ditu laguntza horietara, eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal liburutegien arloan eskumenak dituzten udalei eta administrazio publikoei zuzenduta daude.

Partida honen bidez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagunduko ditu 2021eko ekitaldian egiten diren jarduerak, baldin eta helburua irakurketa sustatzea bada, bereziki, haurren eta gazteen artean, eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburategietan liburutegi- eta kultura-hedapeneko jarduerak sustatzea bada. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarentzat, liburuekiko zaletasuna eta liburutegiak erabiltzeko ohitura errazago bereganatzen dira haurtzaroan eta gaztaroan, eta, horregatik, lehentasunezkoa da herritar mota horien beharrei bereziki erantzutea. Honako ekintza hauek lagunduko dira diruz:

- Irakurketa sustatzearen arloan profesionalak berariaz prestatzera bideratutako jarduerak.
- Irakurketa-jarduera osagarriak (ipuinaren ordua, irakurketa-tailerrak, etab.).
- Liburuen bibliografia-erakusketak, solasaldiak eta abar antolatzea.
- Literatura-lehiaketak antolatzea.
- Liburuak eta liburutegiak sustatzeko kanpainak.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2020an 147 udalek jaso zituzten irakurzaletasuna eta liburutegien erabilera sustatzeko diru-laguntzak.

Seguridad

EL GOBIERNO VASCO Y LA *FEDERACIÓN EUSKAL DYA* SUSCRIBEN UN CONVENIO DE COLABORACIÓN EN MATERIA DE EMERGENCIAS Y PROTECCIÓN CIVIL

- **El nuevo convenio profundiza en la coordinación de esta Federación con el Sistema Vasco de Atención de Emergencias**
- **Euskal DYA es una institución humanitaria, de carácter voluntario, con gran experiencia en el País Vasco en actividades humanitarias y sociales**

El Consejo de Gobierno ha aprobado la suscripción de un convenio de colaboración entre el Departamento de Seguridad y la *Federación Euskal DYA* en materia de emergencias y protección civil. El nuevo convenio sustituye al anterior, que data de 1995, y profundiza en la coordinación entre esta Federación con el Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil poniendo en valor el carácter humanitario y voluntario de la institución.

El *Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil (SVAE)* tiene como objetivo la protección de las personas, los bienes y el patrimonio colectivo tanto en situaciones de riesgos colectivos graves, catástrofe y calamidad pública, como en otros casos de urgencia que pudieran requerir la participación o coordinación de los distintos servicios y operativos.

En este sentido, el Departamento de Seguridad orienta a los diferentes servicios de forma coordinada al objeto de ofrecer la respuesta más adecuada a las distintas situaciones de emergencia gracias al desarrollo de los Planes de Protección Civil y las Tácticas Operativas dirigidos a eliminar o reducir los daños.

El Convenio recoge, entre otros aspectos, las actuaciones que deberá realizar el personal voluntario en materia de protección civil y atención de emergencias, el sistema de movilización y la disponibilidad de medios y recursos.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL PROYECTO DE LEY DEL RECURSO DE CASACIÓN CIVIL VASCO QUE AMPLIARÁ LOS SUPUESTOS PARA RECURRIR POR ESTA VÍA ANTE LOS TRIBUNALES

- **La iniciativa elimina la cuantía económica mínima del proceso, fijada en 600.000 euros, para poder enjuiciar un asunto en casación y amplía el concepto de ‘interés casacional’**
- **Debido a la elevada cuantía, llegan muy pocos casos al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ligados al Derecho civil vasco, poco más de 30 sentencias desde 1989**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Proyecto de Ley del Recurso de Casación civil vasco que regula los supuestos en los que cabe el recurso de casación ante los tribunales de justicia cuando las controversias judiciales afectan al Derecho civil vasco. La iniciativa pretende ampliar los casos en los que procede el recurso de casación y para ello elimina el requisito de “cuantía económica mínima” para poder enjuiciar un asunto en casación y amplía el concepto de ‘interés casacional’, que también es tenido en cuenta para dilucidar cuándo procede la casación.

